

«PIRINIOAK: HIZKUNTZAK ETA LITERATURAK»

Iruña, 2008ko irailaren 29 eta 30ean eta urriaren 1, 2, 3, 4an

Biltzarrerako proposamena eta egitarau-zirriborroa

**(Etxalarren, 2007ko apirilaren 20an, asteartez,
Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldietan)**

*Henrike Knörr,
Iker Sailburua*

Gauza jakina da Euskal Herria hizkuntza eta kultura alor zabal batean egon dela eta dagoela txertatua, hots, Pirinioaren bi aldeekin, eguzkialdetik sartaldera. Giza aztarnak ondare guztiz aberatsa eman du mendeetan barrena. Eta auzo izanak ekarri du hainbat esparrutan kidetasuna, ikertzaileek nabarmendua.

Hemen aurkezten dugun proposamena ondare hori guztia agerrarazteko eta aztertzeko Biltzar bat egitea da, guri dagozkigun sailetan, hau da, hizkuntzetan eta literaturetan. Hizkuntzen eta literaturen lehengo eta oraingo izaera eta egoera azaltzea eta aztertzea genuke xede. Iragina ikertuko da, batetik, baina, bestetik, orain-oraina ere bai: zertan garen oro eta etorkizunari begira zer egin.

Hiru ardatz izango lituzke Biltzarrak:

1. Biltzarra bera.
2. Gure hizkuntzen erakusketa bat, mapen eta bestelako materialen birtartez.
3. Erakusketa / azoka bat, erakunde eta elkarten argitalpenak erakusteko eta saltzeko.

Biltzar akademikoa litzateke, goi-mailakoa. Kanpoan geldituko dira bihotz-berotasunak eta gerrarako deiak.

Hizlari nagusiez gain, txostenak onartuko dira, halatsu: egun bakoitzean lauzpabost hitzaldi eta hamar txosten, guzti-guztiak ongi galbahetuak.

Hitzaldi eta hizlarien zerrenda eratu beharreko batzorde zientifikoak ikusi beharko du.

Hizlari nagusien bigarren proposamena

A. Hizkuntzak

Ataria: gai orokorrak

Mario Alinei (Italia): Europa zaharreko hizkuntzak: egungo eztabaiden berri.

Michael Metzeltin (Vienako Unib.): Hizkuntzen bizirik irautea, hizkuntzen arautzea.

Euskara

- Joaquín Gorrochategui (akitanieraz eta)
- Joseba Lakarra (aitzineuskaraz)
- Iñaki Camino (Dialektologia)
- Pello Salaburu (Baztan eta inguruko hizkerak)
- Andres Urrutia (Zuzenbidearen ikuspuntua)
- Mikel Zalbide: Euskara batua: 40. urteurrenaren atarian.

Bestelako hizkuntza zaharrez

- Jürgen Untermann edo Javier Velaza (iberieraz)
- XX: (hebreerari buruz).
- Mikel Epalza: arabiera eta E. Herria.

Aragoiera

Xavier Tomás Arias
Frantxo Nagore

Okzitaniera eta nafar-aragoiera

Ricardo Cierbide (gaskoieraren ikuspuntu historikoa)
Rober Laborde (egungo egoera)
Xavier Lamuela (araneraz bereziki)
Fernando González Ollé (nafar-aragoieraz)

Katalana

Joan Martí i Castell? (antzinako katalanaz eta)
Joan Veny (Dialektologiaz)
Joan Solà (katalanaren egungo izaera eta erronkak)
Francesc Vallverdú (Soziolinguistika)

Gaztelania

Angeles Libano (El castellano en Vasconia)

B. Literaturak

Euskara

Jean-Baptiste Orpustan
Adolfo Arejita

Aragoiera

XX

Okzitaniara

Francisco J. Oroz

Katalana

Lola Badia
Joan Triadú

Gaztelania

XX

Frantsesa

XX